



Mikel Garcia

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Donostia low cost

MAIATZAREN 23AN Donostia hirigunean Zara erraldoi bat irekiko dutela-eta, pozarren eman dute albisteak, lanpostuak sortu eta jendea erakarriko duelako.

Ehun lanpostutik gora sortuko omen ditu, baina zein baldintzatan? Aldi baterako kontratuak eta ordutegi ezinezkoak ohiko dira Inditex etxean —eta hala adierazi izan dute langileek eurek, kontratuen %80a baino gehiago aldi baterakoak direla kritikatu—. Azpikontratatuak enpresen aldetik ere, salaketak jaso ditu arropa kate espainiarrak, 15 orduko lanaldiak eta soldata barregariak tarteko.

Jendea erakarriko omen du, baina horrek dirua utziko al du inguruko denda txikietan? Mese- de egingo dio herriko merkataritza- ri ala saltoki-gune handian kontzentratuko da aktibitate eko- nomiko-ludiko guztia?

Merkea izango da arropa, baina zeren eta noren ordaine- tan? Behin baino gehiagotan egon da Inditex esklabotza kasu larrien atzean. Tailer klandestino- etan, etorkin ilegalak, haurrak eta nerabeak izan dituzte atzerriko herrialdeetan, esplotazio baldin- tzetan jantziak josten.

Espainiako Estatuko Zara handiena izatea (4.200 metro koadro), Donostiako denda

berriaren ohorea, New Yorken dagoenaren parekoa, baina kon- tsumo eredu (anglosaxoi) zen- tralizatu eta makro hau al da nahi duguna? Bestelako azpiegi- turetara ere zabaldu da eredu horixe —kultur azpiegiturak datozkit gogora—, eta porrot egin du hainbatetan, BEC-en zulo beltza lekuko.

Jendea erakarriko omen du, baina horrek dirua utziko al du inguruko denda txikietan? Mesede egingo dio herriko merkataritzari ala saltoki-gune handian kontzentratuko da aktibitate ekonomiko- ludiko guztia?

Tira, Zaran arropa erosi izan dut, ez dut ukatuko, baina kon- tuz ibili beharko gara, makro low cost ekonomia eredu hau hedatzeak, Media Markt-en ordenagailua eta Ikean altzariak erosteak, low cost gizartera eta low cost bizimodura eramatea nahi ez badugu. ■



BERTSO BERRIAK

Ibai Esoain Arruti



Doinua: Itsaso hori dago zatarra.

Anisakisa

Apurtu dira sokak, sareak... Zer josten ditu “sanidadeak”? Korronteen ta haizeen kontra Kantauriko baporeak (bis). Aingurak eta areak asteotako mareak lehertu ditu ur bareak. Haserre daude bata txuriak ta katiuska berdeak txitxare batek mugitzen ditu sabeleko txitxareak.

Zer irabazi ta zer galtzen den jokoan asko baitago hemen ba al dakigu elikadura zeinek elikatzen duen? (bis) Zail da egia jakiten gomendio, irudipen... sartu, irten, sartu, irten... Ta arrazoia hortxe ari da honi eman ta hari ken saltsa honek zeini laguntzen dio digestioa egiten?

Antxo freskoak egin du behera arrantzaleen kostua bera. Osasungintzak jo behar luke arriskuez ohartzera (bis). Galderak dakar galdera ez naiz arriskatzen, zera erantzunak ematera! Hortik aurrera bakoitzak bere ondorioak atera soziedadeko afalostetan plateretik platerera! ■

